


Prentsa oharra

Nota de prensa



DONOSTIAK ESTATUKO BATEZ BESTEKOA HIRUKOIZTEN DU BIZTANLEKO DISFIBRILATZAILEETAN

Donostiak 144 desfibriladore ditu, hau da, 0,77 DEA (Kanpoko Desfibriladore Automatikoak) 1.000 biztanleko, Estatuko batez bestekoaren hirukoitza.

Marisol Garmendia Osasun Publikoko zinegotziak azpimarratu duenez, "Gure hiriak DEA sare ona du, udal zentro publiko gehienetan, kiroldegietan, kultur etxeetan eta abarretan banatua. Aparatu horiek funtsezkoak dira bihotz-biriketako geldialdiei aurre egiteko eta, horrela, pairatzen dituztenen bizitza salbatu ahal izateko".

Espanian, 1.000 biztanleko 0,26 desfibriladore daude Espainiako Kardiologia Elkartearen arabera (Frantziak 1,85 ditu 1.000 biztanleko, Erresuma Batuak 1,29 eta Alemaniak 1,1). Munduko rankinga Japoniak du, 1.000 biztanleko 2,5 DEA-rekin)

Tresna horiek bihotz-gelditzeen ebazpenean duten funtsezko laguntzaz jabetuta, Donostiako Udalak aparatu horien erregistroa eta kokapena eguneratzeko kanpaina bati ekin zion, horiek titulartasun publikoko eta jende asko biltzen den guneetan zabaltzea baloratu.

Prentsa oharra

Nota de prensa

Eusko Jaurlaritzak berak erregistro bat eta mapa bat ditu "geoEuskadi" aplikazioan, eta bertan aparatu horiek seinalatuta agertzen dira. Kiroldegiak, kultura-zentroak, merkataritza-guneak, udal-bulegoak eta beste leku batzuk dira ohikoenak, eta Osakidetzako anbulantziek nahitaez eraman behar dituztenak ere bai.

2017ko bihotz-gelditzeen kasuak erreferentziatzat hartuta, 77 kasu detektatu ziren hirian: 47 etxean eta 20 bide publikoan (gainerakoak beste leku batzuetan, hala nola lantokietan). Kasu guztietatik 22 gaueko ordutegian gertatu ziren, eta horietatik bi bakarrik bide publikoan, hau da, % 1,1.



BIHOTZ-BIRIKETAKO BIZKORTZE-TAILERRAK ERRETIRATUEN ETXEETAN

Osasun Publikoko Sailak bihotz-biriketako bizkortze-tailer batzuk jarri ditu abian erretirodunentzako, DBHko 4. mailako ikasleekin antzeko tailerrak arrakastaz egin ondoren.

Bihotz-biriketako bizkortze-teknikak irakastea da helburua, bihotz-gelditze baten aurrean jarduteko gai izan daitezen, 112 telefono-zenbakira joan aurretik.

Tailerretan erakusten diren funtsezko urratsak dira egoera garaiz detektatzea, kaltetutako arnasbidea desbuxatzea, bihotzeko masajea ematea, desfibriladorea erabiltzea eta anbulantzia iritsi arte itxarotzea.

Prensa oharra

Nota de prensa

TALLERES DE RCP EN HOGARES DE JUBILADOS DE DONOSTIA 2021

2021 IRAILA				
ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
13	14	15	16	17
<i>ANTIGUO LA SIRENA</i>	<i>CASA NAO ALTZA</i>	<i>GURE EGUNSENTIA</i>	<i>GURE BABESA</i>	<i>IGELDO. KALEAN?</i>
AFOROA 15	AFOROA 15	AFOROA 15	AFORO TOTALA 10	AFOROA 15
20	21	22	23	24
<i>GURE KABIA</i>	<i>KAI ALDE</i>	<i>GURE BIZITZA</i>	<i>GUARDAPLATA</i>	
AFOROA 15	AFOROA 14	AFOROA 15	AFOROA 15	
27	28	29	30	
<i>JATORRA</i>	<i>AITONA AMONEN ETXEA</i>			
AFOROA 15	AFOROA 15			

Tailerrek bi orduko iraupena dute, eta gehienez 25 laguneko edukiera.